

Itzuliz idatzi

JUAN KRUZ IGERABIDE

Nirea itzuliz idaztea izan da. Ez dakit besteak nola moldatuko ziren; antzera edo, nik uste. Kultura beste hizkuntza batean jaso duzunean, ez dago besterik. Gaur egun, globalizazioarekin, kontu hori areagotu egin da; hizkuntza askotatik datozkigu eraginak. Dena dela, historian zehar, beste hizkuntzetatik itzultitako kulturak elikatu gaitu. Beraz, idazterakoan, itzulpena hortxe dago, alde edo molde. Azken batean, idaztera esertzen zarelarik, jasotakoaren, bizitakoaren eta horretatik guztitik ulertutakoaren itzulpen bat egiten dugu. Ondorioz, halako sentipen bat geratzen zaigu: hau ez da, bada, bete-betean, adierazi nahi nuena; itzulita ageri da, hots, ñabardura zenbait galduta, eraldatuta.

Berebiziko zortea gertatzen da eraldaketa horren bidez zerbait edertzea edo argia-gotzea lortzen denean; alegia, zure barruan jaso eta egositakoa itzuli eta arras ondurik irteten denean. Magia hori izaten da idazlearen zoririk behinena, itzulpenik bikainena; eta, hala ere, gezurra: nor bere buruari

eginiko traizioa. Traduttore traditoreak besteri baino gehiago bere buruari egiten dio iruzur.

Hizkuntzak berezkoa du erreferentea argi eta garbi ezin adieraziaren gaitza. Babelen hizkuntzak nahastu zirenetik, elkar itzultzen eta elkar nahasten jardun dira, alde batetik mezua argitu nahian, eta bestetik bakoitza bere buruaren ilunpean murgildu nahian.

Lotsatiak berehala nabaritzen du hitzaren ezina; idatziz erritmoa apaldu, paperaren aurrean jarri eta ezintasun hori argitu eta gaudituko duelakoan, hor abiatzen da esanahien errepidean barrena inoiz erabat saretzea lortzen ez duen lainopean gidari.

Sentipen hori geratzen zait egin dudan ibilbideaz. Nire lehen itzulpenak latinetik hasi ziren, hala moduz, laguntzarik gabe, harrapazka. Meزامutil ibili nintzeneko garaitik, burmuinean iltzaturik geratu zaizkit zenbait esaldi: *Introibo ad altare dei / Ad deum qui laetificat juventutem meam* meza-
ren hasierako hura; edo *Stabat mater dolo-*

rosa, juxta crucem lacrimosa, dum pendebat filius. Harrizko esaldiak, batzuk euskarara maisuki itzuliak: *Zutik gurutze ondoan ama samina zegoan, ta semea zintzilik* (musikaz ere maisuki hornitua zegoen pieza hori).

Nire baitan, hasierako gaztelaniaren eragina baino sakonago iltzatu ziren latin-euskara itzulpen haiek; nolabaiteko heziketa mitologiko izan ziren, barne-muinetan iltzatzen diren horietakoak, halakoen bidez gauzatu baitzen mundu-ikuskeran nire be-launaldiko haur askorengan.

Hortik aurrerakoak gaztelaniaren eta euskararen arteko harreman (batzuetan gatazkatsuan) etengabe gauzatu ziren nire ibilbidean. Zorte eta pribilegio handia izan nuen euskarako klaseak jasotzearekin, Elizako testuez aparte Txomin Agirre eta halako idazleen testuak irakur-entzun izanarekin. Euskarako klaseak itzulpen-klaseak ziren, hein handi batean: Bibliako pasarteak itzuli, euskal tradizioko testu batzuk irakurri (Antonio Zavalaren bildumakoak, esate baterako)... Nerabegarora arte ez nuen euskal testu garaikiderik izan esku artean; frantsesa ikasten hastearekin batera gertatu zen hura. Garai hartan oraindik frantsesa zen nagusi kultura-hizkuntza gisa gure gizartean; euskal testuetan, nabaria zen frantses kulturaren eta hizkuntzaren eragina. Hamabost urterekin, frantseseko irakasle literaturazale baten eraginez, Ronsard eta Villon buruz errezitatzen nituen, Hugoren *Les misérables*-eko edo Molière-ren *L'avare*-ko zatiekin batera. Gero, neure gisara euskaratzen jarduten nintzen halakoak, gaur lotsa emateko moduko ondorioekin, hori ere esan beharra dago, baina ez gogo faltagatik, gidari egoki baten faltagatik seguruenik.

Egoera politikoaz eta historikoaz ohartzek (*kontzientziatzea* esaten zitzaion orduan), klase-kontzientzia zeritzonaz jabe-tzek eta ekinean hasteak itzulpenaren beste alde bat jarri zidan eskura, askoz ere urgenteagoa, gaztelaniari lotuagoa, gaztelania baitzen nagusi hala eduki marxistak nola eduki abertzaleak jasotzeko elebide gisa. Zenbat eta zenbat ahalegin kontzeptu marxistak euskaratzen, Euskal Herriaren historia euskaraz laburbiltzen, panfletoak itzultzen, pedagogia berri bat euskaraz eraikitzen! Horretantxe joaten zitzaizkigun orduak, testu kaskarrez inguratuta. Eskerrak Aresti edo Ez dok amairukoen edo Pako Ibañezen poema musikatuak edo musikatu gabeak irensten genituen tarteka, eskerrak Hego Amerikatik zetorren poesia euskaraz jarri nahiak itzulpena eta idazmena fintzera behartzen gintuen.

Dena dela, nire kasuan, aro iraultzaile hori igaro eta eskolan lanean hasteak ekarri zidan etengabe itzultzeko grina. Haurrentzako testuak, niri gustatzen zitzaizkidan gehienak behintzat, gaztelaniatik edo frantsesetik jasotzen nituen, eta han ibiltzen nintzen halakoak itzultzen. Egia esan, itzultzaile-kontzientzia handirik gabe, gehiago baitziren literaturaz gozatzeko ahalegin premiazoak, idazle-sen jaioberria elikatzeko baliabideak (idazle-kontzientzia handirik gabe, halaber, hasiera haietan).

Nire lehen poema-liburuak (*Notre Dame-ko oihartzunak*), orain asetzen ez bannau ere, itzulpen-ahalegin handi bat zeukan oinarrian; gerora, etengabe jorratu dudana bidea izan da. Garai hartan, Baudelaireren eta Rimbauden esaldiak euskaratzen, egosten, eta haien eraginez idazteko eginahalean

nenbilen; gogoan dut Curros Enríquez-en testuekin ere borrokan jardun nintzela liburua argitaratu aurretik (gero jakin nuen Arestik oso gogoko zuela idazle galego hura).

Aurrerago, nire lehen ikerkuntza-lanean, tesia egitean, etengabe itzuli behar izan nituen kontzeptuak eta edukiak, hala gaztelaniatik nola frantsesetik; ingelesez oso trakets moldatzen nintzen, eta gaztelania erabiltzen nuen zubitzat. Eta aurrerantzeko lanetan ere halatsu jarraitu nuen; *Bularretik mintzora* saiakeran, esate baterako.

Argi dago nirea ez zela izan itzultzaile peto baten ibilbidea. Itzulpena baliabidez erabili nuen, hala idazle gisa nola irakasle gisa. Gero, izango nuen aukerarik obra literario zenbait itzultzeko, itzulpena helburu nagusitzat hartuta. Oso eskerturik nago aukera eta bultzada eman zidatenei, hizkuntzaren odolbideetan are sakonago bidaiatzeko parada eskaini baitzidan horrek, lankide paregabeen laguntzaz.

Oker ez banago, nire lehen itzulpen literarioa Baudelaireren *Le Spleen de Paris* izan zen. Idazle baten lana goitik behera itzultzean, kontu askotaz jabetzen zara; ez bakarrik haren estiloaz, haren edukiez, haren maniez eta gabeziez; lana ibilbide baten barruan kokatu ere egin behar duzu, zertan ari zaren ohartzeko, eta obraren eraikuntzaren ardatz eta korapiloak ere ikusi behar dituzu. Berebiziko ikasbidea da hori idazle batentzat.

Musset-en *Zozo zuriarena* gozamen berezia izan zen, haur eta gazteekin nuen esperientzia baliatu bainuen testu hori gaztetxoentzat egokia gerta zedin ahaleginduz. Geroztik, ugari jorratu izan dut literatura-

lanen itzulpena, hala gustu hutsez nola enkarguz. Txingiz Aitmatov-en *Jamilia* nobelak arrasto berezia utzi zidan, gero *Helena eta arrastirian* agertuko zena. Homeroren *Odisea* edo *Artur erregearen heriotza* anonimoa edo *Ozeko azti harrigarria* edo mitoen bertsoak apustu aberasgarriak gertatu zaizkit, eta eragin handia utzi dute idatzi ditudan testuetan. Esate baterako, *Bosniara nabi* gazte-nobelan, Ulisesen eta Telemakoren bidaien arrasto garbiak ikusten dira, eta pasarteen erritmoa *Odiseakoetan* oinarrituta dago.

Esperientzia berezia izan zen Luzio Apuleioren *Urrezko astoa* latinetik itzultzea Anjel Lertxundirekin batera. Frantseseko eta gaztelaniazko zenbait bertso alderatu genituen; gehienak oso libreak ziren, eta kosta egiten zitzaigun latineko esaldiak identifikatzea. Salvador Seguraren itzulpen literalak, aldiz, hark bai, zehatz-mehatz itzultzen zituen esaldiak, baina latineko prosak zeukan arnasa eta erritmoa galtzen zuen. Hasieratik saiatu ginen, elkarri itzul-lanak bidaliz, latinekoarekin alderatu aurrena, eta, gero, jatorrizkoa ahazturik, euskaraz erritmoa eta arnasa ematen. Asto protagonistak baino asto-lan gehiago egin genuen, eta amaierako berniza ahalik eta finena izan zedin saiatu ginen. Gozamen galanta hartu genuen.

Hala eta guztiz ere, edozein testu idazten duzularik, beti geratzen zaizu iritsi ezinik geratu izanaren sentipena. Itzulpenarekin, areagotu egiten da hori: zeure buruari ez ezik, jatorrizko egileari izan behar zatzaizkio leial. Eta traidore-sentipen larriak hartzen zaitu.

Baina zer besterik egin Babelen lurraldean?

Resumen

Me he dedicado a escribir traduciendo. No sé cómo lo han hecho los demás, pero creo que de manera bastante similar. Cuando recibes la cultura a través de una segunda lengua, no te queda otro remedio. Al fin y al cabo, en el momento en que te sientas a escribir, no haces más que traducir lo que vas asimilando de lo que recibes y experimentas. Desde que las lenguas se confundieron en Babel, no hemos hecho más que traducirnos y confundirnos unos a otros, tratando por un lado de aclarar los mensajes, y por otro de preservar esa oscuridad individual que nos caracteriza.

Résumé

Tout au long de ma carrière j'ai écrit en traduisant. Je ne sais pas comment ont procédé les autres, mais je présume que leur méthode a été semblable. Lorsque vous recevez la culture dans une autre langue que la vôtre, vous ne pouvez faire autrement. Somme toute, au moment où vous vous apprêtez à écrire, vous ne faites que traduire ce que vous avez assimilé de tout ce que vous avez reçu et vécu. Depuis que les langues se sont confondues à Babel nous n'avons cessé de nous traduire et de nous confondre les uns les autres, en essayant, d'une part, d'éclairer les messages et d'autre part, de préserver l'obscurité individuelle qui nous caractérise tous.

Abstract

I have dedicated myself to writing by translating. I do not know how other people do it, but I believe it must be in much the same way. When you receive culture through a second language, you have no other choice. In the final analysis, when you sit down to write, you are essentially translating what you have assimilated from what you have received and experienced. Ever since languages were confused at the Tower of Babel, we have been translating ourselves and confusing ourselves, trying on the one hand to clarify messages, and on the other hand to preserve that individual obscurity that characterizes each of us.